

5

LAGUNTZA

AYUDA

U N I T A T E A

HELBURUA

Ondoezik dagoen
pertsonari laguntza
eskaintzea.

OBJETIVO

Ofrecer ayuda a
alguien que no se
encuentra bien.

5.1. Elkarrizketa

5.2. Ariketak

5.3. Azalpenak

5.4. Hiztegia

5.5. Errepasoa

5.6. Badakizu?

5.7. Erantzunak

5.1. Diálogo

5.2. Ejercicios

5.3. Explicaciones

5.4. Diccionario

5.5. Repaso

5.6. ¿Sabías que...?


5.7. Soluciones

5.1. Elkarrizketa



Komiki honetako elkarrizketa CDan grabatuta izango duzu. Entzun eta ikasi.
Audio-pasartea: CDaren 8. pista.

OIER ETA LEIRE IGERILEKUKO TERRAZAN
DAUDE.OIER ONDOEZIK DAGO ETA LEIRE
TABERNARIARI LAGUNTZA ESKATZERA JOAN DA.




Leire: Aizu! Lagundu, mesedez!

Tabernaria: Bai, zer behar duzu?

Leire: Nire laguna ez dago ondo. Lagunduko didazu?

Tabernaria: Jakina! Non dago?

Leire: Han.




Tabernaria: Zer gertatzen zaio?

Leire: Ez dakit. Buruko mina dauka eta zorabiatuta dago. Badaukazu zerbait emateko?

Tabernaria: Trankil! Egon hemen, itzalean. Orain etorriko naiz.

Leire: Aizu, faborez, ur pixka bat ere bai.



Tabernaria: Tori, ura fresko-freskoa dago. Mesede egingo dio.

Eta lasaitu, orain etorriko da soroslea.


Leire: Oso ondo! Mila esker!

5.1. Diálogo



El diálogo de estas viñetas lo tienes grabado en el CD. Escucha y apréndelo.
Audio: Pista 8 CD.

OIER Y LEIRE ESTAN EN LA TERRAZA DE LA PISCINA. OIER NO SE ENCUENTRA BIEN Y LEIRE HA IDO A PEDIR AYUDA A LA CAMARERA.




Leire: Perdona, ¿nos podrías ayudar?

Camarera: Sí, ¿qué os pasa?

Leire: Mi amigo no está bien. ¿Me ayudas?

Camarera: ¡Sí, por supuesto! ¿Dónde está?

Leire: Allí.




Camarera: ¿Qué le pasa?

Leire: No sé. Le duele la cabeza y está mareado. ¿Tienes algo para darle?

Camarera: Tranquila. Quedaos aquí en la sombra, que vengo enseguida.

Leire: Bien, pero tráenos también un poco de agua, por favor.



Camarera: Toma, el agua está muy fresca. Le hará bien. Y tranquilizaros, ahora vendrá el socorrista.

Leire: ¡Muy bien! ¡Muchas gracias!

5.2. Ariketak • Ejercicios

1. Ariketa

Begiratu argazkiei eta saiatu lotzen esanahi bera duten euskarazko eta gaztelaniazko esaldiak.

Mira las fotos y trata de unir las frases que tengan el mismo significado en euskera y en castellano.



BURUA



BESOA



BIZKARRA



HANKA

- | | |
|---------------------------|---------------------------|
| a. Tiene dolor de cabeza | 1. Hankako mina dauka. |
| b. Tiene dolor de brazo | 2. Buruko mina dauka. |
| c. Tiene dolor de espalda | 3. Bizkarreko mina dauka. |
| d. Tiene dolor de pierna. | 4. Besoko mina dauka. |

2. Ariketa



Entzun berriro elkarrizketak eta osatu hutsuneak.
Escucha de nuevo el diálogo y completa los huecos.

Audio-pasartea: CDaren 8. pista/Audio: Pista 8 CD.

Leire: Aizu! Lagundu, mesedez!

Tabernaria: Bai,

Leire: Nire laguna, ez dago ondo. Lagunduko didazu?

Tabernaria:

Leire: Han.

Tabernaria:

Leire: Ez dakit. Buruko mina dauka eta zorabiatuta dago.

Badaukazu zerbait emateko?

Tabernaria: Trankil!

Leire: Aizu, faborez, ur pixka bat ere bai.

Tabernaria: Tori,.....

Eta lasaitu,

Leire: Oso ondo! Mila esker!

5.2. Ariketak • Ejercicios

3. Ariketa

Jarri euskeraz esaldi hauek.

Pon en euskera estas frases.


- ¿Qué le pasa?
- Tranquila, te ayudaré
- Le hará bien
- Mi amigo no está bien

4. Ariketa

Lotu esaldiak eta marrazkiak.

Une las frases con los dibujos.

- Hartu ura, mesede egingo dizu.
- Nire laguna zorabiatuta dago.
- Eseri hemen itzalean.
- Laguntza behar dut!



5. Ariketa

Lotu galderak eta erantzunak.

Une las preguntas con sus respuestas.

- | | |
|-------------------------------|-----------------------------|
| a. Zer gertatzen zaio? | 1. Bai, tori ur freskoa. |
| b. Non dago zure laguna? | 2. Hankako mina dauka. |
| c. Laguntza behar duzu? | 3. Han dago. |
| d. Badaukazu zerbait emateko? | 4. Bai, laguntza behar dut. |

5.3. Azaipenak

A. Laguntza eskaintzeko

Galdera: Lagunduko dizut/dizuet?
Laguntzarik behar duzu/duzue?

Erantzuna: Bai, lagundu, mesedez.
Bai, laguntza behar dut/dugu.

B. Eta laguntza eskatzen badizute?

Euskaraz aginduak emateko forma bat baino gehiago dago. Hemen bi bakarrik ikusiko ditugu.

Galdera: Mesedez, lagunduko didazu/diguzu?
Mesedez, laguntza behar dut/dugu.

Erantzuna: Bai, lagunduko dizut/dizuet.
Bai, zer behar duzu/duzue?
Jakina! Bai horixe!

C. Nola dago?

Honela galdetuko diogu pertsona bati zer moduz dagoen.

Galdera:	Erantzuna:
a. Nola zaude/dago? Zer moduz zaude/dago?	a. Ondo nago/dago. Gaizki nago/dago.
b. Ondo zaude/dago?	b. Bai, ondo nago/dago.
c. Zer gertatzen zaizu/zaio?	c. Ez, ez nago/dago ondo.
d. Hobeto zaude/dago?	c. -ko mina daukat/dauka. Zorabiatuta nago/dago. Ondoezik nago/dago.
	d. Bai, hobeto nago/dago.

D. Nongo mina duzu?

Euskaraz, minaren kokapena adierazteko, honako egitura hau erabiliko dugu.

GORPUTZ ZATIA + (E)KO + MINA
BURU + KO + MINA = BURUKO MINA
BIZKAR + EKO + MINA = BIZKARREKO MINA

Esateko beste era bat.

Non duzu mina? Hemen.

GORPUTZ ZATIA + (E)AN
BURU + AN = BURUAN
BIZKAR + EAN = BIZKARREAN

5.3. Explicaciones

A. Para ofrecer ayuda.

Pregunta: ¿Te /os ayudo?
¿Necesitas / necesitan ayuda?

Respuesta: Sí, ayúdame / ayúdanos por favor.
Sí, necesito / necesitamos ayuda.

B. ¿Y si te piden ayuda?

En euskera hay más de una forma para ordenar. Aquí estudiaremos dos:

Pregunta: ¿Por favor, me / nos ayudas?
Por favor, necesito / necesitamos ayuda.

Respuesta: Sí, te / os ayudaré.
¿Sí, qué necesitas / necesitan?
Sí, ¡cómo no!

C. ¿Cómo está?

De esta manera le preguntaremos a una persona como se encuentra:

Pregunta:

- ¿Cómo estás / está (él / ella)?
¿Qué tal estás / está (él / ella)?
- ¿Estás / está bien?
- ¿Qué te / le pasa?
- ¿Estás / está mejor?

Respuesta:

- Estoy / está bien.
Estoy / está mal.
- Sí, estoy / está bien.
No, no estoy / está bien
- Me / le duele.....
Estoy / está mareado/a
Estoy mal.
- Sí, estoy / está mejor.

D. ¿Dónde le duele?

En euskera, para expresar la localización del dolor, utilizaremos esta estructura. (E)KO MINA DAUKAT Tengo dolor de...

PARTE DEL CUERPO + (E)KO + MINA (DOLOR)

(cabeza) BURU + KO + MINA = **BURUKO MINA** = DOLOR DE CABEZA

(espalda) BIZKAR + EKO + MINA = **BIZKARREKO MINA** = DOLOR DE ESPALDA

También hay otras formas de expresar el dolor
¿Dónde te duele? Aquí.

PARTE DEL CUERPO + (E)AN

(cabeza) BURU + AN = **BURUAN** En la cabeza.

(espalda) BIZKAR + EAN = **BIZKARREAN** En la espalda.

5.4. Hiztegia

Diccionario

ADITZAK

Behar izan
 Bihurritu
 Deitu
 Ebakia egin
 Eduki
 Egon
 Ekarri
 Erori
 Etorri
 Gertatu
 Hots egin
 Irristatu
 Kolpea hartu
 Lagundu
 Lasaitu
 Min hartu
 Zauritu
 Zorabiatu

EGOERAK

Aurpegi txar
 Bero
 Botaka
 Fresko-freskoa
 Gaizki
 Hobeto
 Hotz
 Konorterik gabe
 Larri
 Minez
 Okerrago
 Ondo
 Ondoezik
 Zorabiatuta
 Zurbil

GORPUTZ-ZATIAK

Beso
 Bizkar
 Buru
 Esku

VERBOS

Necesitar
 Torcer
 Llamar
 Hacerse un corte
 Tener
 Estar
 Traer
 Caer(se)
 Venir
 Ocurrir; Suceder; Pasar
 Llamar
 Resbalar
 Darse un golpe
 Ayudar
 Tranquilizar(se)
 Hacerse daño
 Herir(se)
 Marear

ESTADOS

Mala cara
 Caliente
 Vomitando
 Muy fresco
 Mal
 Mejor
 Frío
 Sin conocimiento; Desmayado/a
 Mal; Apurado/a
 Dolorido/a
 Peor
 Bien
 Mal (con algún malestar)
 Mareado/a
 Pálido/a

PARTES DEL CUERPO

Brazo
 Espalda
 Cabeza
 Mano

diccionario

5.4. Hiztegia

Eskumutur
Hanka
Lepo
Orkatila
Sabel; Tripa

JANARIA - EDARIA

Azukre
Gatz
Jela; Izotz
Kamamila
Limoiarekin
Te
Ur
Zerbait beroa

BESTERIK

Anbulantzia
Aspirina
Botikin
Eguzkitan
Ere bai
Han
Hemen
Itzalean
Lagun
Laguntza
Mesede egingo dio
Min
Nire
Nola
Non
Orain etorriko da
Orain etorriko naiz
Sendagile
Sorosle
Tentsioa jaitsi
Tirita
Ukendu
Zer moduz
Zerbait emateko
Zitxada

Diccionario

Muñeca
Pie; Pierna
Cuello
Tobillo
Tripa

COMIDA - BEBIDA

Azúcar
Sal
Hielo
Manzanilla; Camomila
Con limón
Té
Agua
Algo caliente

OTROS

Ambulancia
Aspirina
Botiquín
Al sol
También
Allí
Aquí
A la sombra
Amigo/a
Ayuda
Le hará bien
Dolor
Mi
Cómo
Dónde
Ahora vendrá
Ahora vendré
Médico/a
Socorrista
Bajar la tensión
Tirita
Pomada
Qué tal
Algo para darle
Picadura

5.5. Errepasoa • Repaso



A. Lotu irudiak eta hitzak.

Une los dibujos con las palabras.

- a. SOROSLEA b. ZORABIATUTA c. IZOTZA d. LARRI NAGO



d



B. Nola esaten da?

¿Cómo se dice?

- a. ¿Qué te sucede?
.....
- b. Una manzanilla con limón, por favor.
.....
- c. ¿Quieres que te ayude?
.....
- d. No estoy bien. Ayúdame, por favor.
.....


C. Erantzun galderei.

Contesta las preguntas.

- 1. Hobeto zaude? (ez)
.....
- 2. Lagunduko diguzu? (bai)
.....
- 3. Non duzu mina? (en el tobillo)
.....
- 4. Non dago soroslea? (ahora vendrá)
.....

5.6. Badakizu? • ¿Sabías qué...?

Euskal Herriko, batik bat, Hegoaldeko taberna gehienetan mostradoreak jaki goxoz beterik ikusteak bertakooi harridurarik sortzen ez badigu ere, aho zabalik uzten ditu gure herrira etortzen direnak. Garai batean goiz erdian mokadutxo bat egiteko basoerdi batzuk lagungarri gisa hartzen baziren ere, gaur, hainbeste egin du aurrera sukaldaritzaren mota honek, "miniaturako sukaldaritzaren" ere baderitza, ezen inolako beldurrik gabe goi-mailako sukaldaritzaren dela esan dezakegun; eta, hasierako zeregin horietatik haratago, otordu bikainak, oso bariatuak, orekatuak eta goxoak egiteko aukera aparta eskaintzen digu: arrautzak era guztietara prestatuta, arrainak, saltsak, entsaladak, itsaskiak... Tabernetan ia denetik aurki daitezkeen arren, zenbait taberna espezializatu egin dira, eta ospe handia dute tabernek zein sukaldaritzaren mota honek gure lurraldetik kanpo.



Aunque a nosotros no nos cause ninguna sorpresa, el hecho de ver los mostradores de la mayoría de los bares de Euskal Herria, sobre todo de Hegoalde, repletos de exquisiteces, deja boquiabiertas a las personas que visitan nuestro país.

En otra época, era costumbre el comer un pincho solamente para acompañar a la bebida; ahora, sin embargo, esta llamada "cocina en miniatura" puede considerarse como "alta cocina" y, más allá de la función que cumplía en sus comienzos, es tan amplia la variedad que nos ofrece (huevos preparados de muchas maneras, pescados, salsas, ensaladas, marisco...), que podemos realizar comidas fantásticas, muy variadas y equilibradas.

Aunque se puede encontrar en casi todos los bares, algunos se han especializado en este tipo de cocina hasta el punto de hacerla conocida fuera de nuestro país.

5.7. Erantzunak • Soluciones

1

1. (pág. 72. or.)

a-2 / b-4 / c-3 / d-1

2

2. (pág. 72. or.)

Leire: Aizu! Lagundu, mesedez!

Tabernaria: Bai, zer behar duzu?

Leire: Nire laguna, ez dago ondo. Lagunduko didazu?

Tabernaria: Jakina! Non dago?

Leire: Han.

Tabernaria: Zer gertatzen zaio?

Leire: Ez dakit. Buruko mina dauka eta zorabiatuta dago. Badaukazu zerbait emateko?

Tabernaria: Trankil! Egon hemen, itzalean. Orain etorriko naiz.

Leire: Aizu, faborez, ur pixka bat ere bai.

Tabernaria: Tori, ura fresko-freskoa dago. Mesede egingo dio.

Eta lasaitu, orain etorriko da soroslea.

Leire: Oso ondo! Mila esker!

3

3. (pág. 73. or.)

- Zer gertatzen zaio?
- Lasai/trankil, lagunduko dizut.
- Mesede egingo dio.
- Nire laguna ez dago ondo.

4

4. (pág. 73. or.)

1-d / 2-b / 3-a / 4-c

5

5. (pág. 73. or.)

a-2 / b-3 / c-4 / d-1

ERREPASOA:

A. (pág. 78. or.)

1-d / 2-c / 3-b / 4-a

B. (pág. 78. or.)

- Zer gertatzen zaizu?
- Kamamila limoiarekin, mesedez.
- Lagunduko dizut?
- Ez nago ondo. Lagundu, mesedez.

C. (pág. 78. or.)

- Ez, ez nago hobeto.
- Bai, lagunduko dizuet.
- Orkatilan.
- Orain etorriko da.